

Liburuak

KRITIKA

Euskal gatazkak

Hemeroteka

Aritz Galarraga

Jose Luis Otamendi entzun eta poeta erantzun, egingo luke lehiakideak. Saria eskuratzeko gainera, besteren gainetik genero lirikoak landu baitu Otamendik. Bilduma gogoangarriak idatzi ere, *Lur bat zure minari*, adibidez, azkena bera, *Erlojuen mekanika*. Ez alferrik, hala definitu zuen Xabier Mendi-guren editoreak aldizkari honetantxe: herri-saminaren poeta fina. Bego.

Baina, ekoizpen poetikoen artean, 1999an egin zuen narraziogintzan sartu-irtena, eta ipuin liburu bat badu geroztik, *Euri kontuak*. Tira, orain baten batek oroitaziko dit poesia eta ipuina ez daudela hain urrun, Sergi Pamiesek dioenaren haritik, argumentaziorako baino sentsazioetarako, emozioetarako ere ematen duela ipuinak. Hemen bada horren adibide garbirik, *Biaoa* esaterako, laguntasunaz, heriotzaz, maitasunaz nola dabilen, ekonomiko, iradokitzaile, poema batean bezala kasik.

Ezen horiek dira bildumaren ezaugarri nagusietako bi, narrazioak bai baitira laburrak, kolpe batekoak, gantzik ez dute, ez soberakinik, neurtuak dira tamainan, neurtuak baliabideen erabileran, hizkuntzan, hizkera maisu-maitasunez darabilte uneoro. Beste ezaugarri nagusi bat gatazkaren presentzia litzateke, gatazka modu orokorrean ulertua, sozialak, ekonomikoak, politikoak dute lekua hemen, euskal gatazka deiturikoak, egungoak, atzeragokoak ere bai, 36kora joaten baita ipuin batean baino gehiagotan. Ez da, haatik, geure zerari buruzko

kontakizun bilduma bat, ez bederen zentzu herztian. Aitzakia baino testuingurua ematen dio idazleari, nola esan, jaisteko plano pertsonalera, morale-ra, giza-emeak erretratzen ditu beren minean. *Hagina* antologatuak, kasurako, gatazka politikoa du atzean, biolentzia politikoa nahiago bada, baina era berean ari da haur izateari utzi dion haur batez, arrebarekin, aitarekin, lagunarekin dituenez, han eta hemen antzera diren kontuez. Bada esportatzeko nagusiki euskal gatazkaren gaia dugula defendatzen duenik. Eta, segur aski, arrazoirik ez zaio falta. Baina geure buruei ere zor diegu geure gai labainari, geure gai labainei buruz hitz egiten duten ipuinak idaztea, ipuin finean unibertsalak, Otamendik *Euri kontuak* honetan egin legetxe.

Elkarriketa batean irakurri nion behin poesian jarduten zuela erosoan. Narraziogintzara jauzi txikia egin duenean, ordea, airoso aritu da oso. Eta eskuartearen zer duen jakin gabe, errepikatze modukoa iruditu zait esperientzia narratibo hau. Lehen bezala orain, herri-saminaren poeta finak behar baititugu behar, baita prosan ere. ■

Euri kontuak.

Jose Luis Otamendi.

Susa.

1999.

168 orrialde.

10,82 euro.



ellauri
HOTELA

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Naturra sentitu

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com